***EPERRA***

*Hitzak : Ezezaguna*
*Muzika :Herrikoia*

Eperrak badititz**ü** bere bi hegalak
Bai eta b**ü**r**ü** gainin kokarda eijer bat
Zük ere balinbazünü gaztetarz**ü**n eijer bat
Neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat.

**La la la ..................................**

Amorosak behar l**ü**ke izan lotsa gabe
Gaiaz ebiltzia ez **ü**ken herabe
Eg**ü**naz ebiltzia desohore leike
txoriak ere oro haier soz dirabe.

Ebili izan n**ü**z**ü** gaiaz eta beti
Eia! atzamanen nianez lili ejer hori
Azkenian atzaman d**ü**t oi! bena tristeki
L**ü**marik eijerrena beitzaio erori.

M**ü**ndian ez da nihur penarik gabe bizi
Nik ere badit aski hoitan segurki
Nik desiratzen niz**ü**n ezkuntzia zureki
Bena ene aitak ezt**ü** entz**ü**n nahi hori.

Zure aitak zer l**ük**e eni erraiteko
Ala enitzaio aski haren ofizioko
Ala z**ü** soberaxe zitzaio enetako
Printzerik ez ahal da orai z**ü**enganako.